

## Wikipedia tailerra antolatu da Mondragon Unibertsitatean

2011/04/12

Azkue Fundazioak antolatzen dituen Ugarteburu Sarien baitan Egin zure sarrera Wikipedian tailerra antolatu da Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan. Informatika eta telekomunikazioko ikasleek jaso dute ikastaroa. Hizlaria Mikel Iturbe euskarazko wikipediako administratzailea izan da eta Goi Eskola Politeknikoan ingeniari-tza informatikoa ikasten ari da.

Ikastaroak bi atal izan ditu: lehenengo teorikoa izan da, wikipedia bere osotasunean zer den eta honen historia azaldu du, euskarazko wikipedia bere osotasunean ere ulertu ahal izateko. Ostean, euskarazko wikipediaren historia azaldu du eta gero wikipediako barne funtzionamendua .

Bigarren atala praktikoagoa izan da eta parte hartzaile guztiek probak egin dituzte artikulua sortzen eta aldatzen, oinarriko wiki-sintaxia ikasteko aukera izan dute; nola egin letra etzanak, lodiak, tituluak eta azpigituluak... Eta bukatzeko irudiak nola igo azaldu.

Azkenik, jendeari proiektu honetan parte hartzeko deia eginez amaitu du hitzaldia.



Wikipediako barne funtzionamendua